

Bertso-eskolentzako materiala eskaintza berezia

Bertsozale Elkarteak eta Lanku Kultur Zerbitzuek bertso-eskolan erabiltzeko material berria sortu dugu: haurrak bat-batean aritzeko **karta-jolasak** eta **Orainmenean**. Bertso-eskolei materiala ahalik eta **eskuragarrien** jartzea ere bada gure nahia.

KARTA-JOLASAK, BILDUMA BANA OPARI!

Sei karta-sortarekin osatutako bilduma emango diogu opari **bertso-eskola bakoitzari**. Bailara mailako bertso-eskola handiek herri bakoitzerako ale bana jasoko duzue.

KARTA BILDUMA GEHIAGO EROSTEKO AUKERA, KOSTU PREZIOAN

Edizio bakarreko argitalpena izango da, beraz, interesaturik egonez gero, orain egin behar da eskaera. Bilduma (6 karta-sortak) erosteko aukera izango da inprentako kostu prezioan: **bilduma 32 €**-tan.

ORAINMENEAN, %50EKO BEHERAPENAREKIN

Orainmenean liburuxka ilustratua prezio erdian erosteko aukera emango dizuegu bertso-eskolei: **liburuxka 6€**-tan.

EGIN ESKAERA!

Epea: **azaroak 25**

Lekua: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertso-eskola/material-eskaria>

MATERIALA NOIZ ETA NON JASO

- **Urtarrilaren lehen astetik aurrera** jaso ahal izango da materiala.

- Erosketa egiterakoan aukeratutako **Bertsozale Elkarte**an izango duzue eskura. Jakinarazpena bidaliko da.

- Egoerak Bertsozale Elkarte ekoiztara joatea zailtzen bada, jarriko gara partaideekin harremanetan, **aterabide egoki**ena aurkitzeko.

haurrak
bat-batean aritzeko

Karta jolasak

Argitaratzaileak:



Babeslea:



- **Bat-batekoan hasiberriak** diren **haurrentzako** karta-jolasak.
- **Bertso-eskolan ala ikastetxean** erabiltzeko, **bertsotan dakien heldu baten laguntzarekin**.
 - Bertsozale Elkarte **irakasle lantaldeak** sortuak.
 - **Sei karta-sortarekin** osatutako bilduma.
- Karta-sorta bakoitza **bat-bateko ariketa jakin** bat lantzeko da, eta **zailtasun mailaren arabera** multzokatuta daude.



LEHEN PUNTUA EMANDA

. **Egitekoa:** jarritako puntuari erantzutea, kartan agertzen diren oinak baliatuz.

. **Karta kopurua:** 144

AZKEN PUNTUA EMANDA

. **Egitekoa:** azken puntua eta oinak emanda, koplala bertsoa osatzea.

. **Karta kopurua:** 144



OINAK EMANDA


. **Egitekoa:** 4 ala 8 oin emanda, koplala bertsoa osatzea.

. **Karta kopurua:** 128

GAIA SORTZEN

. **Egitekoa:** elementu ezberdinak konbinatuz (egoera, pertsonaia, emozioa), gaia sortzea.

. **Karta kopurua:** 80



PASA HITZA

. **Egitekoa:** puntua entzunda, hitz ezkutua zein den asmatzea, A-tik Z-ra arte.

. **Karta kopurua:** 144

ERRIMA KARTAK

. **Egitekoa:** errimatzen duten kartak lortzea eta horiekin koplala bertsoa osatzea.

. **Karta kopurua:** 48 (errimatzen duten 4 kartako 12 multzo)



ORAINMENEAN

Bertsolaritzaren genealogia feministak biltzen dituen album ilustratua.



Argitaratzaileak:



Bertsolaritzaren historia ikuspegi feministatik berridatzi eta berrirakurtzeko saiakera da Orainmenean liburuxka. Zirrikietan arakatu eta ikusezina ikusgarri egiteko ahalegina: emakume bertsolariak beti existitu izan direla azpimarratzeko, batetik, eta, bestetik, azken urteetako bilakaerari erreparatzeko.

Bilduma honetan, **40 emakume bertsolari** edo, **emakume bertsolari kolektibo** ilustratu eta bildu ditugu, bertsolaritzaren genealogia feministak sortuz.

Txakur Gorria sormen kolektiboak Lankurekin elkarlanean osatutako lana dugu honakoa. Bertsolaritzaren historia ulertzeko eta transmititzeko ezinbestekoa.

*Izan zirenei,
eta, batez ere,
izan zirenik ere ez dakigun guztiei.*

